



MINISTERIO  
DEL INTERIOR



# GIDATZEKO LIZENTZIAREN LUZAPENA

## DOKUMENTAZIOA

**1º.- ESKAERA:** inprimaki ofizialean Trafikoko Buruzagitzetan eta TZNaren web orrialdean eskuragarria (www.dgt.es). Indarra galdu aurretiko hiru hilabete lehenago eska daiteke.

**2º. IV.3 TASA: 24,10 €.**Hiru era tasak ordaintzeko: internetez [www.dgt.es](http://www.dgt.es) helbidean, banku-txartelaz Trafikoko Buruzagietan eta kontu-korrontez edo eskudirutan finantza-erakundeetan (791 inprimakia eskuragarri dago Buruzagietan eta hemen: [www.dgt.es](http://www.dgt.es))

### **3º. NORTASUN ETA EGOITZAREN EGIAZTAPENA:**

- NAN edo PASAPORTEA: originala indarrean
- EGOITZAREN BAIMENA edo bere herrialdeko NORTASUN AGIRIA edo PASAPORTEA ATZERRITARREN ERROLDA ZENTRALEKO INSKRIBAPENAREN ZIURTAGIRIAREKIN batera atzerritar komunitarioentzat: originala indarrean.
- EGOITZA BAIMENA komunitarioak ez diren atzerritarrentzat: originala indarrean.

### **4º. GAITASUN PSIKOFISIKOARI BURUZKO TXOSTEN TELEMATIKOA GIDARIENTZAKO AZTERKETA ZENTRO BATEK** Gidarien Erregistroan idatzirikoa.

**5º. ARGAZKIA:** originala 32 x 26 mm-koa kolorean eta atzealde leunarekin, aurretik hartuta burutsik eta kristal iluneko betaurrekorik gabe edo pertsona identifikatzea eragoz dezakeen beste edozein janzkirik gabe. Erljioa dela-eta ilea estalita daramaten eskatzaileak badaude, beloaz eginiko argazkiak eman daitezke baina, onartuak izateko, derrigorrezko baldintza hau bete behar da: aurpegiaren obaloa ilearen sortzetik kokotsera arte guztiz estalgabetuta egon behar da, pertsona identifikatzea galarazi edo oztopa ez dezaten.

## BALIZKO BEREZIAK

**HELBIDEA:** Aldaketa-kasuan, helbide berria jakinarazi.

*Erroldatze-helbide eta EJGZko frogagirien aurkeztu ordez, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak informazio hori telematikoki ziurtatzeko berariazko baimena eman daiteke. Horretarako, izapide-eskabideko formularioan dagokion laukitxoa markatu, edo egoitza elektronikoan edo Trafikoko Buruzagitzetan eskuragarri dagoen berariazko baimen-formularioa bete behar duzu. Informazio onargarria jasotzen ez bada,egin daitekeen konponketak agiriak aurkeztea behar izango du.*

**TASA:** A) 70 urtetik gorakoek ez dute tasarik ordaintzen.

B) Arrazoi medikoengatik luzapena ezarritako epetik beherakoa denean, tasen prezioak jarraiakoak izango dira:

4 Urte Arte	19,30 €
3 Urte Arte	14,50 €
2 Urte Arte	9,70 €
Urte bat edo gutxiago	4,90 €

**ORDEZKARIAK:** Agiriak baimenaren titularrak aurkeztu ezean, ordezkaritzat joko duen pertsonak bere identifikazio-agiri ofiziala zein interesdunak emateko ahalmena aurkeztu behar izango ditu izapidea egiteko, non doakotasuna agertzen den.